

PAPIRO ZAHARRAK BERRI

K.a. 2560. urtea, NILONDO, ARROZILAREN 30A

INOIZKO PIRAMIDERIK HANDIENA AMAITZEN ARI DIRA GIZAN

DUELA HOGEI URTE HASI ZIREN PIRAMIDEA EGITEN, ETA AZKEN EGUNOTAN BUKATZEN ARI DIRA. DATORREN PAPIRILAREN (PAPIRO GEHIEN EKOITZEN DEN HILA) 3IN INAUGURATUKO DUTE.



Badirudi, datorren hilaren amaiera alderako Gizako piramiderik handiena erabat amaituta egongo dela.

Esklaboak piramidea osatzen ari dira eguzkitik eguzkira, faraoia hurrengo bizitzan hobeto bizitzeko. Horregatik, janariz, urrez eta altxorrez bete dituzte hainbat gela. Baina ez da erraza hor sartzea, piramidea tranpaz beteta baitago. Sarkofagora iristeko labirintoa ezin hobeto gelditu dela aipatu du ingeniari nagusiak.

Gizan K.a. 2580ko agorrilaren 20an hasi ziren lanean, eta K.a. 2560an bukatuko dute.

Faraoiak esan duen bezala: "Monumentu hau oso garrantzitsua da, eta ingeniari eta esklaboak azken ukituak ematen ari dira piramideari, nire hurrengo bizitza paregabea izan dadin".



Idazkera hieroglifikoaren adibide bat.

IDAZKERA HIEROGLIFIKOA GERO ETA GEHIAGO ARI DA ZABALTZEN EGIPTON BARRENA

MESOPOTAMIAKO GURE ARBASOEK BESTELAKO IDAZKERA ERABILTZEN ZUTEN; HAIN ZUZEN ERE, KUNEIFORMEA, BUZ TIN GAINEAN EGITEN ZENA. EGIPTON, ORAIN, PAPIROAK ERABILTZEN HASIAK DIRA HIEROGLIFIKOAK GARATZEKO.

Idazkera kuneiformea Mesopotamian erabiltzen da, baina, orain Egipton, bestelako idazkera garatzen hasi dira.

Aldaketa hau papiroari esker gertatu da, besteak beste. Orain dela gutxi, Mesopotamiako idatziak aztertu dituzte, eta buztinetik papiroa pasatzea egokia ikusi dute.

"Idazkera berri honekin, askoz errazagoa da gauza konplexuak adieraztea. Horregatik uste dut etorkizunean Egiptoko idazkera hau izango dela". Horiek izan dira eskribau baten hitzak.

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke

GIZARTEA ETA POLITIKA

AZKEN GERTAKARIEN PAPIROA



Esklabeok sarkofagoan sarturiko mapetako baten irudia.

BOST ESKLABO HIL DIRA PIRAMIDEAK EGITEKO LANETAN; HAIN ZUZEN ERE, SARKOFAGOTIK IRTETEN ARI ZIRELA

Pasa den astelehenean, arrozilaren 13an, Erregeen Haranean, bost esklabo hil ziren faraoiaren sarkofagotik irteten ari zirela.

Gertakaria honela izan zen: lehenik, esklabeok faraoiaren gorpua sarkofagoan zegoela ziurtatu zuten, eta ondoren, bitxi, mapa eta luxuzko elikagaiak aurkitu zituzten; hala nola garagardoa, haragia, eztiak.

Ondoren, sarrerako atea trabatu egin zen eta esklabeok ezin izan zuten atera. Bi ordu pasa ziren eta esklabeok gose ziren; beraz, ikusten zuten guztia jaten eta edaten hasi ziren, baita garagardoa ere.

Baina garagardoa pozoiturik zegoen, eta horren ondorioz, bertan hil ziren. Hona hemen esklabo baten familiarteko baten hitzak: "Nire semea oso pertsona ona zen; beno, behintzat, bapo janda abiatu da hurrengo bizitzara".

HATSEPSUT IZENEKO EMAKUMEA FARAOI IZANGO DA EGUNEN BATEAN

ETORKIZUNA IRAGARTZEN DUEN ESKRIBAUAK ZIURTATU DU JAINKOEKIN HITZ EGITEKO GAITASUNA DUELA ETA HATSEPSUT IZENEKO EMAKUME BAT FARAOI BILAKATUKO DELA ESTATU-KOLPEA EMANEZ.



Hatsepsuten irudia izan daitekeena eman da argitara.

Tutmosis III.a faraoi den garaian gertatuko omen da guztia. Hala ziurtatu du eskribauak jainkoekin hitz egin ondoren.

Hatsepsutek Egiptoko zibilizazioa hankaz gora jarriko duela uste da. Baina faraoi izatera iristeko arazoak izango ditu, Tutmosis III.aren, batez ere.

Uste da emakumeen egoera hobetzen saiatuko dela, produktuen prezioak jaitsiko dituela eta etxe modernoagoak egingo dituela, emakumeen beharrak kontuan hartuz.

Eskribauak hala esan du: "Zorte ona ekarriko du Egiptora, baina guk ez dugu ezagutuko. Asko falta baita bera jaiotzeko".

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke

EKONOMIA

EKONOMIA KONTUEN PAPIROA



Nilo ibaiaren ingurua.

NILO IBAIA MERKATARITZA BIDE GARRANTZITSUA DA JADANIK

Garraioetan aditu diren egiptoarrek ziurtatu dute Egipton Nilo ibaia egoteak asko errazten duela merkataritza eta harremanak estutzen dituela ondoko herrialdeekin. "Ibai hau da Egiptok duen altxorretako bat".

Nilo ibaian zehar, truke ugari egiten dira egunero-egunero. Adibidez: janaria, armak egiteko materiala, animaliak, arropa egiteko oihalak edota papiroak. Azken hauek, gainera, indar handia hartzen ari dira.

Nekazaritzarako, Nilo ibaia gertu izatea oso baliabide ona da, Egipton ur gutxi dagoelako. Ura garraiatzea, izan ere, erraza da, ondoan dutelako ibaia. Arrantzatze edota arropa garbitzeko ere Nilo ibaia erabiltzen da. Gero eta indar handiagoa hartzen ari da.

NILOK BUSTIRIKO LURRETAN LORTURIKO ELIKAGAI ETA PAPIROEN TRUKE, EGURRA EKARRIKO DA EGIPTORA

MESOPOTAMIAKO BIZTANLEEKIN TRUKEA EGINGO DUTE EGIPTIARREK. EGURRA BALIABIDE OSO ONA DAETA GAUZA ASKOTARAKO ERABIL DAITEKE.

Uste da egurra Egiptora ekartzearen onurak izugarriak izango direla. Batetik, altzariak egin daitezke. Bestetik, etxeak egiteko edota margotzeko mihiseak egiteko ere erabil daiteke. Sarkofagoetarako altzariak eta apalak egiteko ere erabli nahi da etorkizunean.

Hauek dira papiroen truke egurra ekartzeko baimena emateko faraoiak erabili dituen hitzak: "Gauza onak eta praktikoagoak egiten badituzue, eta luxuzko bitxiak oparitzen badizkidazue, utziko dizuet egurra Egiptora ekartzen."



Egiptora iritsiko den egurra.

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke

ARTEA ETA SINESMENAK

ARTE ETA SINESMENEN PAPIROA



BALTSAMATZEKO ETA MOMIFIKATZEKO TEKNIKAK HOBETZEN ARI DIRA

Zorionekoak gu! Azkenaldian momifikazio teknikak aurrerapen ikaragarriak izan dituzte. Oraingoan, gure ondorengo bizitzan dotore-dotore bizitzeko aukera izango dugu.

Adituen eginiko azken bileran teknika berriei buruz hitz egin dute, eta pribilegiatu asko agertu dira interesaturik. Prezioak ere zehazten hasi dira eta laster emango dute horren berri.

Horretarako, momifikazio prozesua zehazteko lanean ari dira. Hitz hauen bidez azaldu du Hantsep adituak: "Lehenik eta behin, sudurretik brontzezko pintza batzuekin garuna aterako dizugu, horren ondoren, erditik irekiko zaitugu eta hesteak aterako dizkizugu. Bukatzeko, berriz, embalsamatu egingo zaitugu eta bendak jarriko dizkizugu gorputz osoan. Eta nahi baduzu, zure maskotarekin momifikatuko zaitugu! Baina prozesu hori garestixeagoa da!"

RA JAINKOARI EZKUTATZEKO ESKATUKO DIETE BIHARKO ELKARRETARATZEAN, EURIA EGIN DEZAN

RA JAINKOARI EURIA EGITEKO ESKATUKO DIOTE HERRITARREK, NEKAZARITZARAKO BEHARREZKOA BAITA.

Egun hauetan ez du ia batere euririk egin. Horregatik, hain zuzen ere, bihar arratsaldean egiptoar ez pribilegiatuak Ra jainkoari euria eskatuko diete. Piramidearen aurrean elkartuko dira gorantz begira otoitz egiteko.

Ra eguzkiaren jainkoa da, eta ez pribilegiatuak ezkutatzeko eskatuko diote lainoei eta euriari tokia egin diezaion, baratzeak ureztatze eta uzta hobetzeko.

Ra-k hegazti baten burua du eta pertsona baten gorputza. Horregatik, herritarrek ere bere itxura hartuko dute manifestazioan, Ra jainkoarekin bat egiteko.



Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke

KULTURA ETA KIROLA

KULTUR ETA KIROL GERTAKARIEN PAPIROA



Lan handia egin dute eta orain greba prestatzen hasiko dira.

ESKRIBAU EK SALATU DUTE LANEZ GAINEZKA DAUDELA ETA PAPIRO GEHIAGO BEHAR DITUZTELA

LAN KARGA IKARAGARRIA DUTELA SALATU
DUTE ETA HIEROGLIFIKOAK NON IDATZI EZ
DUTELA ERE BAI.


Egiptoko Keops faraoiaren 5 eskribauek (Akila, Sagira, Neith, Aziza eta Safiya) esan dute papera falta zaiela eta hieroglifiko ugari idatzi behar dituztela. Sagirak esan duen bezala: "Asko idatzi behar dugu, eta eskuak erabat minduta dauzkagu, tendinitisari buelta eman ezinik gabiltza".

Egoera honekin amaitzeko, 5 eskribauek greba egingo dute datorren asteazkenean, arrozilaren 15ean. Faraoiak hala esan du: "Asko kexatzen dira, eta lan gehiago egin beharko lukete!"

EGIPTIATLOIA BI ASTE BARRU IZANGO DA: KORRIKA SAIOA MENFISEN, IGERIKETA SAIOA NILON ETA GURDI LASTERKETA GIZA INGURUAN

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DA ETA
BERRIKUNTZA PILA BAT EGONGO DIRA AURTEN.

Ekainaren 21ean Egiptiatloia izango da. Irabazleak pribilegiatuen festa tradizionalera joateko aukera izango du eta urrezko koroi bat jasoko du, faraoiaren antzekoa. Bigarren postuan gelditzen denak larru on batez eginiko arropa irabaziko du. Hirugarren gelditzen denak, berriz, janari poltsa handi bat irabaziko du.



Faraoiak esan duen bezala; "Gogo handiz prestatu dugu festa, espero dugu denek ondo pasatzea eta irabazleak disfrutatzea!"

Momentuz apuntatu direnak hauek dira: Athenet, Netikerty, Sinhue, Merit, Amsi, Nubia eta Nathifa. Oraindik 12 plaza gelditzen dira.

Amaitzeko, gogorarazi dute Nilon kontuz egiteko igerian, krokodilo familia bat agertu berri delako.

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arroz truke

JAIEGUNAK

JAIEGUNEN PAPIROA



Hemen ari dira faraoi, noble, apaiz eta eskribauak urte amaierako festa ospatzen.

FARAOI, NOBLE, APAIZ ETA ESKRIBAUUEK URTE AMAIERAKO FESTA EGINGO DUTE PIRAMIDEAREN ATARIAN

FARAOI, NOBLE, APAIZ ETA ESKRIBAUUEK
PROPOSATU DUTE URTE AMAIERAKO FESTA
DENEK ELKARREKIN ETA POZIK EGITEA.

Urte amaiera dator, eta denak oso pozik daude. Esklaboei bi egun libre utzi dizkiete familiarekin egoteko. Baina esklaboek dena prest utzi dute, faraoiak bere lagunekin batera urte amaierako festa egiteko.

Pribilegiatuek, mahaiaren inguruan, otoitz egingo diote Ra-ri eguzkiak emankotasuna ekar dezan. Anubisi hildakoak zaintzeko, Isisi Egipto osoa babesteko, Osirisi hildakoak ongi epaitzeko, Maati justizia egiteko eta abar.

Faraoiak urteroko hitzak errepikatuko ditu: "Pozik ibili jaiegun hauetan eta gogoratu kandelak ezin direla gaueko 12ak arte piztu, argizariak alferrik ez gastatzeko".

ESKLABOAK AURKITU DITUZTE EZKUTUKO AFARI BAT EGITEN HIPOGEOAN

HIPOGEOA BERRITZEN ARI ZEN ESKLABO TALDE BAT
EZKUTUKO AFARI BAT EGITEN HARRAPATU DUTE
FARAOIAREN SOLDADUEK.

Hasteko esan beharra dago esklaboak harriak eramaten ari zirela hipogeora, eta pribilegiatuak afaltzen ikusi dituztela sartu direnean.

Eta lekuko baten esanetan, hau entzun zioten faraoiari esaten: "Ja, ja, ja... gu hemen afari ederra egiten, eta gure esklaboak buru-belarri lanean!"



Hona hemen pribilegiatu bat jaten eta barrez.

Hori entzundakoan, esklaboek lan egiteari utzi zioten. Eta esklabo batek bere kideei ideia hau xuxurlatu zien: "Zergatik ez diegu esaten janaria emateko eta lanean hasiko garela?"

Galdetzera joan zirenean, pribilegiatuek barre algara artean hau esan zieten: "Tori ogi pusketa bana eta alde egin segituan lanera".

Emandakoa hartu eta gero, esklaboak konturatu ziren Osirisen festak zirela, eta beraiek ere ezkutuko afari bat egin zuten Hipogeoko ganbera sekretu batean, pribilegiatuei janaria lapurtuz. Baina soldaduek harrapatu egin zituzten, eta eskorpioietara bota zituzten zigor gisa. Bertan akabatu ziren.

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke

BERTSO PAPIROAK

TXUTXUMUTXU ETA GERTAKARI XELEBREEN TXOKOA

BERTSO JARRIAK IDAZKERA HIEROGLIFIKOARI JARRIAK

1-Kuneiformea edo
hieroglifikoa
idazkera ederra
asmaturikoa
ulertzen zaila eta
oso kurioa
ondo ulertzea da
gure intentzioa.

2-Bidali ditzakezu
maitasun gutunak
zure gustukoari
pozteko egunak
papiroak betetzen
ari dira lumak
ta espero ditugu
zuen erantzunak.

3-Gaur goizean esnatu
naiz oso arraro
eskuak nekatuak
idatzi ta gero
Faraioak esan du:
“idatzi orduro”
neke handiarekin
gabiltza egunero.

4-Faraioak gurekin
haserretu dira
harrapatu gaituzte
leihora begira.
Zigorra jarri nahian
a ze tira-bira,
baina ez gara joango
oso urrutira.

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke

BERTSO PAPIROAK

TXUTXUMUTXU ETA GERTAKARI XELEBREEN TXOKOA

BERTSO JARRIAK HIPOGEOKO AFARIARI JARRIAK

1-Hipogeoan badago
algara ederra,
hainbat antropofagok
jaten dute xerra,
ugazabak ez daki
montatu den gerra,
esklaboak zelati
afari lasterra.

2-Garagardoz beteta
daude mozkortuta,
hipogeoak dirudi
oraintxe txalupa,
eta ondo ikusteko
behar dute lupa,
hobe lukete orain
jatea bai fruta.

3-Arazo itsusi honek
izango zigorra,
mozkortu direnentzat
oso sentikorra.
Komentatzen da plazan
zein gauza gogorra
zigorra izango da
betiko iraunkorra.

Salbatuko al dira
gure esklaboak?
Osirisek kenduko
bere bekatuak!
Txakurtxoak, oiloak,
eta gameluak,
geldituko baitira
ondo ordainduak!

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke



BERTSO PAPIROAK

TXUTXUMUTXU ETA GERTAKARI XELEBREEN TXOKOA

BERTSO BERRIAK MONTIOA FARAIOIARI JARRIAK

1-Egipton badaukagu
mobida handia,
faraoi koitadua
maitemindu egin da.
Egoera bihurtu da
oraintxe larria,
Sofia maite du ta
zein etsigarria!

2-Basamortuan dago
galdurik ia-ia,
penak ezin konpondu,
non da argi-izpia?
Betiko eduki nahi du
ondoan Sofia
ta bere emazteari
esan dio egia.

3-Konponbidea aurkituz
banatuko dira
adostu dute, baina
a ze tirabira:
piramidea niretzat
ta bere distira,
zuretzat bi mastaba
nahikoa da, tira!

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke



BERTSO PAPIROAK

TXUTXUMUTXU ETA GERTAKARI XELEBREEN TXOKOA

BERTSO BERRIAK NILOKO KROKODILOEI JARRIAK

1.Nilon agertu dira
hainbat krododilo
ta ez zaitez ausartu
hor egitera lo
hauze ez da gezurra
dira pilo-pilo
hemendik korri egin
eta izan oilo.

2.Hortxe dator ta kontuz,
Titan krokodilo
zuk bukatuko duzu,
eginda membrilo.
Hil osteko bizian,
izan barraskilo,
ta libratuko zara,
izatez tontilo.

3.Oso arriskutsua da
hor gerturatzea,
eta beldurgarria
Titan topatzea.
Horregatik eskatu
harresia jartzea,
debekatzeko behingoz
jendea sartzea.

....

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke

BERTSO PAPIROAK

TXUTXUMUTXU ETA GERTAKARI XELEBREEN TXOKOA

BERTSO BERRIAK PIRAMIDEEI JARRIAK

1-Piramideetan daude
esklaboak asko
trafiko arazoak
zer-nolako atasko
pertsona ugari ta
gurdi eta asto
bidea bete dute
buztin eta lasto.

Egiptoko arteak
hortxe du iraungo
ederra ondarea
digute utziko,
lau mila urtez behintzat
bistan, ageriko,
jendearen mirespena
baitute lortuko.

2-Esklaboek ugari
egiten dute lan,
piramideak hortxe
betiko iraun dezan,
esklaboen bizitza
ez edan ta ez jan,
harrien pisu handia
beti bizkarrean.

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke



BERTSO PAPIROAK

TXUTXUMUTXU ETA GERTAKARI XELEBREEN TXOKOA

BERTSO BERRIAK HOROSKOPOEI JARRIAK

Hemen horoskopoa
da garrantzitsua.
Taurus, Libra ta Pisces,
zein duzu zurea?
Edozein momentutan,
zorte edukitzea.
Baina Virgo bazara,
ganoragabea!

Horoskopo guztiek
egon nahi ederrak,
baina horretarako
badituzte gerrak,
asto esnetan bainatuz
beso eta izterrak,
ezpainak makillatuz
ta begi bazterrak.

Gure Aquarius dugu
zeinu arraroa,
bere lehengusua du,
mendiko arranoa,
mingain gaiztoa dauka
bizia ahoa,
zortetik ez du izango
pertsona gaiztoa!

Pribilegiatuentzat doan / Ez-pribilegiatuentzat libra bat arrozen truke

ESKELAK

AZKEN HILDAKOAK



1

Ramsés: 37 urte, piramideetako bloke handia buru gainera erori zaio gaur goizean.

Jainkoek gorde dezatela hurrengo bizitzan!



2

Hamida: 10 urte, asto batek harrapatu du piramide bidea zeharkatzen ari zela. Bere ama Asenat da, alarguna.

Jainkoek gorde dezatela hurrengo bizitzan!



3

Horus: 23 urte, esklaboek bere janarian pozoia bota zioten.

Jainkoek gorde dezatela hurrengo bizitzan!



4

Monswen: 42 urte, sarkofago batean bizirik sartu dute, eta oxigeno gabe gelditu da.

Piramideko ingeniaria zen eta nahita hil dutela uste da, piramideko labirintoen berri inork ez jakiteko.

Jainkoek gorde dezatela hurrengo bizitzan!



ERREZETAK

FARAOIAREN MENUA



1

Lehenik eta behin, korrokoi bat lortu behar duzu (beste arrain mota bat ere har dezakezu), ezkatak kendu eta ketu kanpoaldean.



2

Gero, hegazti garbi batzuk ontzi batean jarri ur oso berotan, eta salda egin. Barazkiak eta espeziak ere bota: ezkaia, erromeroa eta abar.




3

Eta azkenik, postrerako eztia lortu eta ogiarekin lagundu (diru gehiago baduzu, fruituekin lagundu).



4

Edaritarako, garagardo freskoa lortu (eta diru gehiago baduzu, datilez eginiko zukua sesamoarekin).



DENBORA-PASAK

HIEROGLIFIKOAK

Zein da Egiptoko nagusia?

FA- RA- 

Non idazten dute eskribauek?


-3'1416
-Roan

LETRA-ZOPA

- Anubis
- Egipto
- Faraoiak
- Ibaiak
- Nilo
- Piramidea
- Pribilegiatuak
- Sarkofagoa


K A U T A I G E I L I B I R P
N M K U E O A S I U L M D K I
O T P I G E A P E B L I G N P
O A S E T I R N K I A S U P D
R I E A O P S A B B F D N T E
I A S U O P N T R A C E P I U
T R M N E G F O G I P R N D T
F M E I O B A A L A R M A O P
C B I A U T E F R K K F O N A
E P Q L D I G N O A N S A R F
M G C A K A X E S K O I D U T
L H R A N P B I L O R I L N V
F M S U D I O L T R F A A O I
E L B C N O M R A H T E S K N
R I P O I G Y L T F P K I E U
S O A A E D I M A R I P D T I
P L A E O R C S T U D M N H C

DENBORA-PASAK

GURUTZEGRAMA

Egipto

Bete gurutzegrama hau



Horizontalak

- Faraoiak hiltzen zirenean, honetan bihurtzen zuten.
- Egiptoko ibairik garrantzitsuen.
- Errege -erreginen jainkoa.
- Akenator erregearekin ezkontuta zegoen.
- Begetazioaren jainkoa.
- Papiroetan idazten zuten jeroglifikoekin.
- Keops, Kefren eta Mikerinos ziren.

Bertikalak

- Enbalsamatzeko erritua zaintzen duen jainkoa.
- Egiptoko erlijioa zen
- Egiptoko animalia sakratua.
- Gaizkiaren jainkoa, imperioko jainkoa eta monarkiako patroia.
- Lehoiaren gorputza eta emakumearen gorputza duen eraikuntza.

HOROSKOPOA

ZER GERTATUKO ZAIZU?



1

Capricornus

Ez dakizu maitasunak zer ekarriko dizun. Lan ikaragarria egin beharko duzu piramideetan zure altxorra lortzeko. Kontuz, Niloko sugeen pozoiarekin.

2

Aquarius

Zure bikotekidea haserretu nahi ez baduzu, erosi iezazkiozu bi datil dozena. Bitxiak gorde itzazu etorkizunerako. Kaputxa kentzen baduzu, sarkofago bat irabaziko duzu.

3

Pisces

Familia ondo zaindu, denbora beraiekin pasa eta disfrutatu. Ez dakigu noiz ikusi behar ditugun eskeletan!

4

Aries

Ziurrenik lagunekin gatazkaren bat izango duzu eta konturatuko zara ez direla zuk pentsatzen zenuen bezalakoak. Kontuz piramideekin, istripuren bat gertatu daiteke.

5

Taurus

Zure bizitzako etaparik onenetariko bat bizitzeko zorian zaude, hartzen dituzun erabakien baitan. Ondo pentsatu zure erabakiak. Komeni zaizu amuletoren bat izatea gida moduan.

6

Gemini

Kalera ateratzeko kapak jarri, birusak airetik dabiltza eta ez dugu ezer harrapatu nahi. Zure urtebetetze egunean lihozko tunika arrosa eramaten baduzu, zerbait ona gerta daiteke.

7

Cancer

Badakigu, faraoiaren txistea oso ona dela, baina, ez egin faraoiari, ondorioak egon daitezkeelako (oso txarrak)

8

Leo

Gauean animaliengandik babestu behar duzu, ezer ez gertatzeko. Zortea nahi baduzu, jantzi Isisen lepokoa.

9

Virgo

Pribilegiatua edo ez-pribilegiatua zara. Pribilegiatua baldin bazara, ez egin burla ez-pribilegiatuei, "karma" gogorra izan daitekeelako eta ez dut uste ez-pribilegiatua izateko asmoa duzunik. Ez-pribilegiatua baldin bazara, zure bizitza aldatu daiteke eta pixkanaka gertaera onak egon daitezke.

10

Libra

Zure bizitza ez da oso perfektua eta hobetu nahi baduzu, aldaketak onartu behar dituzu eta gauza berriak probatzen saiatu behar duzu.

11

Scorpius

Haserre zaudenean inork ez du zurekin egon nahi, beldurra ematen duzu eta! Faraoia nazkatzen hasia zara eta agian pentsatu behar duzu nola aldatu eta zure haserrea nola kontrolatu.

12


Sagitario

Autoestima baxua duzu ziurrenik, baina jakin ezazu uste baino indartsuagoa zarela, barrutik zein kanpotik. Ez duzu makillajerik behar, ezta ileorderik ere.

GAURKO TXISTEA



- Aizu, nora zoaz?
- Festa batera...
- Eta hori?
- “Farra-on” moduan nagoelako!



TXUTXUMUTXUAK



Adarrak

Faraoiak bere emazteari adarrak
jarri zizkion,
Sofia garbitzailearekin.

Itzuli faraoia; itzuli, itzuli, faraoiaa,
ezzzzzzzzz!!!

IKASGAIA:

Ura pasa eta gero, alferrik da presa egitea!

Ilusioa

Hapsit eskribauari
maitasunezko gutun bat
iritsi zaio,
baina hieroglifikoan jartzen duena
ez du ongi ulertzen.

IKASGAIA:

Aditzaile onari, hitz gutxi!

Banaketa

Faraoiak adarrak jarri
dizkionez bere emazteari,
banatu egin dira eta Faraoia
Sofiarekin joan da bizitzera,
baina erne...

IKASGAIA:

Urrutiko intxaurrak
hamalau, gerturatu eta lau!

Ustiapena

Sofiak diru gehiago lortu
nahi duela erabaki du. Hala,
Faraoiari etekina ateratzea
erabaki du. Beraz, plan bat
egin du; eta biharamunean,
Faraoia gosaltzera joandakoan,
Sofia Faraoiaren
gelara sartu da eta
altxor guztiak ostu dizkio.
Ikaragarria!

IKASGAIA:

Egon hadi lo, eta jango duk mehe!